

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Iñaki Arregi Moraza*

*Andoain,  
Gipuzkoa  
(1927)*

Aurkibidea



## Biografia



Aita amasarra zuen, baina Andoainen bizitua. Zapataria zen ofizioz eta hari zerbait laguntzen aritu izan zen Iñaki. Ama, berriz, Oriakoa zuen (oraingo Lasarte) eta baratzeaz eta etxeko lanez gainera, denda txiki bat gobernatzen zuen. Sei seme-alaba izan zituzten eta laugarrena zen Iñaki. Andoainen "kalean" jaio bazen ere, harreman handia izan zuen beti baserriarekin. Izan ere, batez ere 50/60 hamarkadan, eliza-dirua biltzen ibili zen baserriz baserri. Lauzpabost lagun ibiltzen ziren lan horretan, baina elizarekin izan zuen hartu-eman ez zen horretara mugatu; Caritasen boluntario gerra ostean, gaixo taldeekin lanean 25 urtez... Kanturako sekulako afizioa izan du eta eliza-kantak eta bertso zaharrak bildu izan ditu. Gerra aurrean eskolan ikasi zuen kanta bat ere gogoan zuen oraindik. Eskola ona izan zuela zioen. Laborde lantegian delineante ikasketak egin eta hogeita zortzi urtez horretan lan egin eta gero, eraikuntzan lan egiteko atera zen Labordetik. Andoainen bizi izan da beti.

## Zintak

### AND-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-01-20
- **Iraupena:** 97 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

### AND-020

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa

- **Data:** 2010-06-15
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

#### **AND-040**

- **Proiektua:** Ahoz aho, belaunez belaun
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1996-04-24
- **Iraupena:** 75 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione
- **Emalea:** Romero, Petri

#### **AND-041**

- **Proiektua:** Ahoz aho, belaunez belaun
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1996-04-25
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Romero, Petri

#### **AND-042**

- **Proiektua:** Ahoz aho, belaunez belaun
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1996-05-02
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Romero, Petri

#### **AND-043**

- **Proiektua:** Ahoz aho, belaunez belaun
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1996-05-02
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Romero, Petri

#### **AND-088**

- **Proiektua:** Beterriko kantak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ibañez Mendikute, Leire
- **Data:** 1999-11-04
- **Iraupena:** 23 min
- **Euskarria:** DVD
- **Emalea:** Ibañez Mendikute, Leire

#### **AND-094**

- **Proiektua:** Beterriko kantak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ibañez Mendikute, Leire
- **Data:** 1999-11-04
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** DVD
- **Emalea:** Ibañez Mendikute, Leire

# Pasarteak

## 1. Eliza-dirua batzen baserriz baserri

- **Erref:** AND-001/002
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:01:06. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

### Laburpena:

Eliza-dirua batzen ibilia da baserrietan 50-60ko hamarkadan. Elizak izendatutako gizon batek biltzen zuen gero dirua eta elizaren gastuetarako erabiltzen zen. Baserrietan ongi-etorri beroa egiten zieten. Talde desberdinak ibiltzen ziren auzoka banatuta. Zehaztutako kopurua izaten zen eman beharrekoa eta erreziboak egiten zitzaizkien baserritarrei.

## 2. Apaiza soroak bedeinkatzera baserrietara

- **Erref:** AND-001/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

### Laburpena:

Apaiza, eliz mutilen laguntzaz, soroak bedeinkatzera joaten zen baserrietara. Isipuarekin ur bedeinkatua zabaltzen zuen soroetan, errezatzen zuen bitartean. Garia ere izaten zen, baina gehienbat arto-sailak izaten ziren.

## 3. Guraso eta aitona-amonen jatorria

- **Erref:** AND-001/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

<p>Aita, izatez, Andoainen jaioa zen, baina l&ntilde;akiren aitona Amasakoa eta amona Zizurkilgoa ziren. Ama Oriakoa zuen. Amaren aldeko aitona burgostarra zen eta handik omen datorkio Moraza abizena.</p>

## 4. Aita zapataria; zapatagintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** AND-001/005
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:10:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

**Laburpena:**

Aita zapataria zuen. Beraiek ez zuten askorik ikasi lanbidea. Osaba bat gazterik itsututakoa zuen eta hark laguntzen omen zion aitari. Zapatagintzaren inguruko azalpenak ematen ditu; zapatek hezetasunik har ez zezaten zer egiten zen. Gero "eztenarekin" josten ziren. Anaia batek lanbideari eutsi omen zion, nahiz eta gero Kutxan lan egitera pasa.

**5. Kanturako zaletasuna familian**

- **Erref:** AND-001/007
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>Musikarako zaletasuna izan dute familian. Solfeoa ikasten hasi ziren, baina ez omen zuten behar bezala ikasi. Kantatzeko joera handia zuten bai anaiek eta baita lehengusu batek ere, tartean Nemesio Etxanizen kantak. Lehen tabernetan kanturako zaletasun handiagoa zegoen, baina pixkanaka galtzen joan da. Kantak liburu edo liburuxketatik buruz ikasten zituzten.</p>

**6. "Lagundurikan danoi..." Otañoren bertsoak**

- **Erref:** AND-001/008
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:14:18. **Bukatu:** 00:18:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

**Laburpena:**

<p>Otañon aitak, Ameriketara joan zenean, semeari abestutako kanta gustatzen omen zaio gehien. Sei bertsoak abesten ditu: "Lagundurikan danoi..." Honekin lotuta, Otañon semeari Ameriketara joaterako eman zion irakaspena azaltzen du. Beste hainbat kanta ere ikasi zituen 5 pezeta ordainduta erosi zuen liburuxka batetik.</p>

**Transkripzioa**

- Gehien gustatzen zaidana, ta eliza maillakua da nahi bazu, Otañon ze kantatu zion aittak semiai Ameriketara jun zanian.
- Buruan daukazu?
- Goguan? Bai, sei estrofa dauzkat.
- Kantatu nahi badittuzu...
- Asko ez [baita] izango...
- Guk ez daukagu topeik.
- E?

- Guk ez daukagu topeik, nahi baldin badittuzu kantatu.
- Bueno. Ba, kantuba hau da:

Lagundurikan danoi  
gugatik hil zanak,  
seme, hazi zaitugu  
aitak eta amak,  
beti zure gidari  
izandu geranak.  
Orain gurutze honen  
oiñean esanak  
ondo goguan hartu  
bihaituzu danak.

Zu Ameriketara  
joatia hemendik,  
Jaunak hala nahi badu,  
zer egingo det nik?  
Han ez dezu izango  
aitik eta amik,  
ta ez zera galduko  
noranahira joanik,  
ez bazaizu ahaztutzen  
gaur hemen entzunik.

Ez nizuke utziko  
joaten, egietan,  
gure erlijiorik  
ez balitz han bertan.  
Iritsiko baziña  
han urrutietan,  
herri ta elizarik  
ez dan tokietan,  
oroi zaitez Jainkoaz  
leku guztietan.

Ez dakit danak zeatuko dittuten, baiño...

Seme, izan goguan  
zeure gurasoak  
hemen uzten dituzun  
senide goxoak,  
jaio ziñan tokiko  
mendi ta basoak,  
euskerazko otoitzak  
edo errezuak,  
erakutsiyak zuri  
amatxo gaxuak.

Ta, bukatzeko... biharbada batenbat tartian utziko nun, baiño azkenekua da:

Iritsi da ordua  
juan behar dezuna,  
badakizu aita-amak  
hemen dauzkazuna.

Ez dezazula ahaztu  
gaur hemen entzuna,  
hitz baterako hau da  
eskatzen zaizuna:  
izan zaitez nunahi ta  
beti euskalduna.

- Jolin! Ze politta!

- Ba, biharbada bat utziko nun tartian, baiño... Gioia hemen eduki banun, danak kantatuko nittun, zeatikan hasiera kostatzen da. Ta horren sarrera politta izan zan, gaiñera. Preamble bezela o, esplikatzen du hoi idatzi zunak [...] aittak semia mahaian gaiñea iyoazi zula ta esan ziyola: "Oan bizkarra nei emanda jarri hai mahaian gaiñian iyota, ta bota lurrea". Ta bee kontu haundiyakin, baiño bota emen zan lurrea, ta aittak bihar bezela propiyo ez heldu ta esan ziyola: "Ameriketaa juatian ez fiyatu hire aittakin 'e!".

- Ez da irakasgai...

- Bueno, ta hoi bezela, ba, "Loriak udan ihintza bezela..." ta bueno, "Markesaren alaba enamoratusa, mariñeruekin..." ta, bueno, montoi bat hola. Ta hasi ezkeo... Baiño bat baiño gehio ahaztu in zaizkit. Baiño hartu ezkerko liburu bat segitzeko, [...]. Ta bi liburuxka, bost pezeta pagatutakuak zian.

- Jolin, ni harritzen naizena da han liburu hoik nondik eskuratzen zenittuzten garai hartan ta...

- Ba, librerin batetik. Bai, ordun 'e bazian.

## 7. Bertsopaperak; erdi euskaraz erdi erdarazko kantak

- **Erref:** AND-001/009
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:18:28. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Musika

### Laburpena:

<p>Martin Ugaldere osaba bat ibiltzen omen zen bertsopaperak banatzen. Izaten ziren erdi euskaraz erdi erdaraz ziren kantak. Erdarazko bertso bat eta "Bihotzeko asto gaixua" kanta abesten ditu.</p>

### Transkripzioa

- Gero esaten da bertsopaperak saldu ere egitten ziela.

- E?

- Bertso paperak saldu, saltzen ziela.

- A! Paperakin bazan holakua. Hemen bat... prezisamente bat zan Martin Ugalde —aitzera ez dakit bazun—, haren osaba, bertsopaperak banatzen ibiltzen zana. Ta horrena 're, por ejemplo, oan danak ez bada 're gogoratzen naiz nola esaten zun erdi erdera erdi euskaldunaz: "Pepito cayó al patio desde un quinto piso".

Pepito cayó al patio  
desde un quinto piso  
una misa al santo Cristo

de Lezo  
Le ofrezco agradecido  
por salir ileso.  
Posterior en el cuello  
le salió un divieso  
Al médico avisó  
con rayos revisó  
algo le divisó  
sabéis lo que le hizo:  
aplicarle un emplasto  
hecho con yeso. (bis)

Holako kanta pillá bat ordia, e!

- Erdi euskeraz ta erdi erderaz esan dezu ta “Biyotzeko asto gaixua” ta hoik  
´e bazian.  
- “Asto gaixua”, hoi´re memoriz dakit. Oan bertan nahi bazu abestuko  
nizuke.

Al ikullu ya no vuelve  
mi buen astua, no vuelve no,  
ya no brinca de poxa  
cuando cabeza tocar alguno,  
arraia suerte txarra  
tripakomíñas poner hizo  
biyotzeko asto gaixua  
malkos tiraba cuando murió.

Ahora te hace dos años  
juxtu-juxtuak que ayer cumplió  
que las tripakomíñas  
al pobre burro le agarró  
con su arrantza fuerte  
una noche me despertó  
biyotzeko asto gaixua  
malkos tiraba cuando murió.

Hor´e akaso batenbat utziko det zeatu gabe, baiño... [...] Igual aldatuko  
det, baiño...

Levantarme yo enseguida  
y al ikullu me marché yo  
con ojos de bixigu triste  
como hablarme mirar hizo  
estirar luego la pata  
y como harri koskorra se endureció  
biyotzeko asto gaixua  
malkos tiraba cuando murió.

Ordena, hoi ya ez naiz... Aurrian izan banun liburuxka, ba, danak esan...

## 8. Gerra ostean sagar txortanak eta laranja azalak jateko prest

• Erref: AND-001/011

- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Gerra ostean janari falta zegoen eta gosea pasa zuten. Ama 30 urte ingururekin alargun gelditu zen 5 seme-alabarekin. Ez zuen inolako diru-laguntzarik izan eta zuten denda txikiarekin ateratzen ziren aurrera. Eguberrietan amonaren etxean elkartzen ziren. Konpota egiten zuen amonak, eta mutikoak zain egoten ziren sagar txortanak jateko. Txerriak jaten zituen gauzak ere jaten omen zituzten, laranja azala, esaterako.

## 9. Gerra ostean esnearen ordeza ura; "morokillua"

- **Erref:** AND-001/012
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Gerra ostean janari falta zegoen eta dendetan ere dena gastatu zen. Batzuetan esnerik ere ez zuten izaten eta ura erabiltzen zuten esnearen ordeza. Kafea txikitzearekin artoa txikitu eta "morokillua" esaten zioena egiten zuten. "Pan de higo" ere izaten zuten. Antzerkiak egiten zituzten lagun artean. Behin zozketa batean untxi bat tokatu zitzairen. honen inguruko azalpenak.

## 10. "Belengo portalian" gabon kanta

- **Erref:** AND-001/014
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:29:38. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

**Laburpena:**

<p>15-20 urte inguru egin zituen koruan abesten. Eguberrietan "sola" ere egin izan du. "Solo"an abestu izan duen gabon kanta abesten du.</p>

**Transkripzioa**

- Geroztikan, ni koruan egongo nitzan, ba, bi pusketan, 15-20 urte igual, koruan kantatzen. Ta, esan deana, behiñ´e ez det izan musikik. Ta noiz o noiz solon bat´e kantatu Eguarritan´e bai. Ba... solua izan zan, oso netzako preferittutakua, ta oan semiak´e tentatzen naue hola Eguarritan kantatzeko. Ez dizut dana abestuko, baiño:

"Belengo portalian negu gogorrian  
jaio da gure Jesus askatxo batian  
askarik gabe dago abere artian,  
gutziz ahaltsua dana zeru ta lurrian".

Hantxen dagoooo...

Ta hoi zean... hoi askotan kantatu izandu det. Ta inkluso koruan bertan´e Andoaingo elizan´e... Musikadunak ez dula kantatu nahi ta "Hik kantatuko al dek?", "Bueno, kantatuko dit". Ta...

- Hoixe! Gogua izan ezkeo...
- Bai, bai. Ni hortan ez naiz erregutu... erregu eske ibili.

## 11. La Salletik Laborde lantegira 1941ean

- **Erref:** AND-001/016
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

### Laburpena:

<p>5 urte inguru egin zituen La Salle ikastetxean. 1941eko San fermin egunez 19-10 lagun Laborden hasi ziren lanean, lehen promozio gisa. Laborde lantegia nolakoa zen. Gerra garaian bonbardaketetatik babesteko sotoa ere bazuen. La Sallekoekin harremana izan zuen gero ere, bertako administrazioan lan egin baitzuen denbora batez.</p>

## 12. Iñaki izenaren inguruko gorabeherak

- **Erref:** AND-001/019
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:34:18. **Bukatu:** 00:36:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

### Laburpena:

Francoren garaiko debekuak. Iñaki izenaren gorabeherak. Erregistroko jatorrizko dokumentuan "Ignacio" izenaren azpian "Iñaki"ren arrastoak ikusten omen dira.

## 13. Gerra aurretik eskolak euskaraz; euskal kanta

- **Erref:** AND-001/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:36:11. **Bukatu:** 00:38:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kanta » Bestelako kanta
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

**Laburpena:**

<p>La Sallen gaztelaniaz ikasten zuten, baina ez zieten zigorrik jartzen euskaraz egitearren. 1933-1936 bitartean euskaraz ematen zituzten eskolak. Horren frogatzat orduan ikasitako euskarazko kanta bat abesten du: "Bai ederra dala aberri maitea..." Gerra etorri zenean aldatu ziren kontuak.</p>

**14. Zenbaitek euskara beldurragatik galdu du**

- **Erref:** AND-001/023
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:40:57. **Bukatu:** 00:42:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Bera umea zela euskara asko entzuten zen Andoainen. Baina gaur 50-60 urte inguru duten askok galdu egin omen zuten, beldurragatik. Zenbaitek euskarak zertarako balio duen ere galdetzen dute.

**15. Senideek hika egiten zioten elkarri**

- **Erref:** AND-001/024
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:42:10. **Bukatu:** 00:43:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Senideen artean hika hitz egiten zuten. Emaztearen aldeko familiak zukarako joera zuen, errespetu handiagokoa zela eta. Berorika ere hitz egiten zitzairen errespetu gehieneko pertsoneri, aitonei, adibidez. Kontua asko aldatu da.</p>

**16. Laborde lantegian hasi zenekoa**

- **Erref:** AND-001/026
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:44:37. **Bukatu:** 00:46:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

**Laburpena:**

<p>14 urterekin aprendiz gisa hasi zen barautsak egiten zituen Laborde lantegian. Hasieran eskolak hartu zituzten eta gero praktikak egiten zituzten. 400-500 langile inguru zituen orduan Labordek eta sail desberdinetan egiten zituzten praktikak. Bera delineatzailea izan zen.</p>

## 17. Laborde lantegi berezia: korua, mendizaletasuna...

- **Erref:** AND-001/028
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:48:40. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

### Laburpena:

<p>Laborde lantegi berezia zen. Korua ere bazuen eta Gabonetan kantuan ateratzen ziren dirua biltzeko. Bildutako dirua ospitaleari ematen zioten. Mendizaletasuna ere orduan sortu omen zitzaien eta Mendizale Elkartearen sorrera Laborderi esker izan zela dio. Laborden sartzeko, gainera, andoaindarra izan behar zen hasieran eta La Sallen ikasitakoek zuten lehentasuna. Jendeak inbidia zien eta kanta bat ere atera zieten.</p>

## 18. Laborde lantegiaren sorrera

- **Erref:** AND-001/029
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:52:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

### Laburpena:

<p>Laborde lantegia 1927an sortu zuten pabilioi zahar batean alemaniar jatorriko bi anaiek. Injineruak omen ziren biak. Barautsak egiten zituen hasieran lantegiak, baina gerora hainbat erreminta egin izan dituzte bertan. 1940-50eko hamarkadan alemaniarrekin bat egin omen zuen lantegiak.</p>

## 19. Algodonera, lantegi zaharrenetakoa

- **Erref:** AND-001/031
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:55:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

### Laburpena:

Andoainen Algodonera (Subijana) zen lantegi zaharrenetakoa. Telak egiten zituzten bertan, maindireak, mahoizko arropak... 400-500 langile inguru izango zituen orduan. Gozokiak egiten zituzten denda ere bazegoen herrian. Pertsianak egiten zituen lantegia ere nahiko handia zen. Hasieran egurrezkoak egiten zituzten, baina gerora metalean ere hasi ziren lanean. Gaur egun galdu egin dira lantegi horiek.

## 20. Etxeetan dutxarik ez, baina Laborden bai

- **Erref:** AND-001/033
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:56:17. **Bukatu:** 00:58:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

### Laburpena:

<p>Orduan etxeetan ez zen dutxarik izaten. Bere jaiotetxean aska bat zegoela gogoan du eta han bainatzen ziren tomate poto baten laguntzaz. 1964 arte ez zuen dutxarik ezagutu etxean. Baina Laborde lantegian bazituzten dutxak ordurako.</p>

## 21. Emakumeen lana Laborden eta tela-fabriketan

- **Erref:** AND-001/034
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:58:05. **Bukatu:** 01:00:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

### Laburpena:

<p>Emakumeak ere bazeuden lanean Laborden. Barautsak (brokak) egiteko makina automatiko samarra zen eta hura zaintzen egoten ziren emakumeak. Paketatze lanetan eta garbitasunean ere lan egiten zuten emakumeek. Tela fabriketan ere baziren emakumezkoak eta, gainera, lan horretarako egokiagoak zirela gizonezkoak baino esaten zen.</p>

## 22. Andoaingo garbitokiak; kotxeak urri

- **Erref:** AND-001/036
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:00:33. **Bukatu:** 01:02:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

### Laburpena:

Garbitokiak non zeuden Andoainen. Ibai ondoan ere losak egoten ziren eta hara joaten ziren emakumeak arropa garbitzera. Lehenbiziko garbigailua non ezagutu zuen. Bera umea zela ia kotxerik ere ez zen ibiltzen eta beraiek errepidean egiten zuten jolas.

## 23. Andoaingo garbitokiak

- **Erref:** AND-001/037

- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:02:36. **Bukatu:** 01:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

Andoaingo garbitokiak non zeuden.

## **24. Benito Arratibel aguzilak patat banatzen zuen alondegitik**

- **Erref:** AND-001/038
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:03:35. **Bukatu:** 01:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Udal langileak

**Laburpena:**

Garai batean aguazil gutxi izaten ziren, 2-3 asko jota. Benito Arratibel aguazilaren inguruko kontuak. Patata egiten omen alondegian eta gero, Goiko parrokiatik jendea irteten zenean, bandoa irakurtzen zuen norbaitek patata behar bazuen alondegitik pasatzeko esanez. Alondegiaren egitekoa.

## **25. 1940-50eko goseteen 'Caritas'ekin behartsuei laguntzen**

- **Erref:** AND-001/039
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:06:18. **Bukatu:** 01:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

<p>1940-50 bitartean gosete handia izan zen. Ordurako <em>Caritas</em> bazen eta bera ere laguntzen ibiltzen zen. Amerikarrek esne-hautsa eta gazta lata handiak bidaltzen omen zituzten. Esne-hautsa labadoran uretara botata egiten omen zuten esnea. Beharra zuen jendeari banatzen zioten gero jatekoa edo esnea. Sei urte inguru egin zituen boluntario gisa.</p>

## **26. 25 urte gaixo taldeei laguntzen**

- **Erref:** AND-001/040
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:08:14. **Bukatu:** 01:09:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

**Laburpena:**

Elizarekin lotuta, 25 urte inguru egin ditu gaixo taldeei laguntzen. Apaiz batek bera izendatu zuen arduradun. Ardura utzi zuen arren oraindik laguntzen ibiltzen da. Gaixoekin harremana ez da erraza izaten.

**27. Andoaingo festa eta erromeriak**

- **Erref:** AND-001/042
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:13:18. **Bukatu:** 01:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

Andoaingo udaleko kultura zinegotzia izan zen eta herriko jaien antolaketan aritzea tokatu zitzaion. San Juanak eta Santa Krutzak ziren Andoaingo festa nagusiak. Lehenago San Ferminak ere ospatzen ziren. Erromeriak: San Esteban eta San Roke. Beste auzo batzuetako jaiak.

**28. "Pepito Txurrerua": Pepe Andoain soinu-jolea**

- **Erref:** AND-001/044
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:17:58. **Bukatu:** 01:19:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

"Pepito Txurrerua" deitzen zioten Pepe Andoain soinu-joleari. Hala deitzen zioten txurro-denda zutelako. Berak umetan ezagutu zuen Pepe. Haren inguruko datuak biltzen ibilia da.

**29. Don Jose Oiarzunek bultzatutako antzerki-taldea**

- **Erref:** AND-001/045
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:19:38. **Bukatu:** 01:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena:**

Don Jose Oiarzun apaizak bultzatuta antzerkia egiten zuen gazte talde batek. Secundino Etxeberriak egiten zuen zuzendari lana. Herriz herri ibiltzen ziren antzeztzen. Taldeko partaideak izendatzen ditu.

**30. Hainbat taldetako kide**

- **Erref:** AND-001/046
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:21:11. **Bukatu:** 01:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Politika eta Franco

**Laburpena:**

<p>JOC (<em>Juventud Obrera Cat&oacute;lica</em>) elkarteko kide ere izan zen. Belgikan sortu eta hona etorritako elkartea zen, garai batean <em>Acci&oacute;n Cat&oacute;lica</em> deitzen zitzaiona. Gerora beste talde baten ere parte hartu zuen. Han egunkari pixka bat iraultzailea kaleratzen zuten eta bera zen egunkariak banatzearen arduraduna. Umeekin begirale gisa ere ibilia da.</p>

**31. Iparragirre zinema eta eliz-taldeen pelikulak**

- **Erref:** AND-001/048
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:24:15. **Bukatu:** 01:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena:**

Elizako taldeen babesean, pelikulak botatzen zituzten. Bere arreba sarrerak saltzen egoten zen eta koinatua pelikula proiektatzen. Iparragirre zen zinema ofiziala. Hernanira zinera joateko joera ere bazegoen, han serieak botatzen zituzten eta. Dantzara ere gazte asko joaten zen.

**32. Izebei ilea "zerora" moztu zietenekoa**

- **Erref:** AND-001/049
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:25:55. **Bukatu:** 01:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena:**

Gerra garaian, Oriora joan ziren egoera pixka bat lasaitu arte. Itzuli zirenean, etxea prezintatuta aurkitu zuten. Komandantziara joan behar zutela esan zieten eta halaxe joan ziren bere bi izeba. Han ilea "zerora" moztu zieten, abertzaleak izatearren. Gero txapela jantzita ibiltzen ziren. Izebetako bat oso ausarta omen zen eta behin erreketekin joan zen kotxean Donostiara autostop eginda.

**33. Gose garaian katuak harrapatzen zituzten jateko**

- **Erref:** AND-001/052
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:31:50. **Bukatu:** 01:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Etxe atzealdean patioa zuten. Untxiak izaten zituzten patioan. Arratoiak ere ugari ibiltzen ziren eta batzuetan inguruetan zebiltzan katuak ere ez ziren ausartzen arratoi artera joaten, zuten tamainagatik. Beraiek gerra ostean gosea pasa zuten eta zenbaitetan katuak harrapatzen zituzten jateko. Katuak harrapatzeko nolako tranpak jartzen zituzten azaltzen du. Arratoi tranpak.

**34. Anaiak ibaian barboa harrapatu zuenekoa**

- **Erref:** AND-001/053
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:35:15. **Bukatu:** 01:36:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Ibaian aingirak harrapatzen zituzten jateko. Bere anaiak kordela jartzen zuen ibaian zerbait harrapatzeko asmoz. Behin barbo handi bat harrapatu zuen. Barboa hartu eta kordela han utzita joan zen etxera. Bitartean ibai ondoko etxeko oiloak kordeleko zizareari kolpe egin zion eta oiloa lepotik lotuta geratu zen.

**35. Lan bat baino gehiago bizi izateko**

- **Erref:** AND-040/008
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:09:29. **Bukatu:** 00:11:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

**Laburpena:**

"Lau ordenean" lan egiten hasi zela kontatzen du Iñakik. Familia handitu ahala, beste lan bat ere bilatu zuela kontatzen du. Lagun batek motoa zuenez, lantegira berarekin joaten zen.

**36. Dirudun itxuratan**

- **Erref:** AND-040/013
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:14:13. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Iñakik anai bati gertatutako anekdota kontatzen du. Anaia diru gehiago zuten lagunekin ibiltzen zen, eta itxurak egitearren dirua eraman zuen kalera, baina gastatzeko beldurrez etxera itzuli eta amari berriro dirua bueltatu ziola kontatzen du.

**37. Gose garaian edozer jateko prest**

- **Erref:** AND-040/016
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:17:09. **Bukatu:** 00:18:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

"Algarrobak" abereentzako ekarri arren, beraiek jaten zituztela kontatzen du Iñakik. Gosearen ondorioz jan izan zituen jatekoak aipatzen ditu.

**38. Gerraostean gosea**

- **Erref:** AND-040/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:19:20. **Bukatu:** 00:20:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Iñakik gaztetan 36 kg pisatzen zituela kontatzen du. Okela erosteko ere pertsonako 50 gr erosi ahal zituzten soilik asteen behin. Gauetz egoten ziren ilaran, turistek ez ikusteko nola bizi ziren.

**39. Andoainen euskaraz**

- **Erref:** AND-040/022
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Eskolan eta herrian euskaraz egiteko aukera zutelako zortea izan zutela dio Rokek.

**40. Ikasketa maila bajuak gehienek**

- **Erref:** AND-040/023
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:31:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

**Laburpena:**

Ikasketa garaian gazte gutxi iristen zirela Batxilergora kontatzen du. 14 urterekin lanean hasten zirela dio Jose Marik. Gehiago ikasi nahi zuenak gaueko eskolara joan behar izaten zuen lanetik irten ondoren. Iñakik ofizio bat ikasteko aukera izan zuen, eta zorte handiagoa izan zuela dio.

**41. Gaztetako jolasak**

- **Erref:** AND-040/026
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:35:35. **Bukatu:** 00:37:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Kaniketan eta txotxekin nola jolasten zuten azaltzen du. Kilkerrak nola harrapatzen zituzten kontatzen die; kaleko etxeetan leiho guztietan entzuten zirela dio Iñakik.

**42. Igandetako entretenimentua**

- **Erref:** AND-040/027
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:37:59. **Bukatu:** 00:41:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena:**

Igandeak nola pasatzen zituzten kontatzen du Jose Marik. Goizean mezetara joan, eta arratsaldean zinera joaten ziren txandaka. Zine mutua izaten zen. Bizimodua kalean egiten zutela azaltzen du Iñakik. Antzerkia ere ikusten zuten.

**43. Gaztetako dibertsioak**

- **Erref:** AND-040/030
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:43:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Kirola » Futbola
- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

Auzoen arteko futbol lehiaketak egiten zituztela kontatzen du Iñakik. Jose Mariren aitarekin ogi banatzen ibiltzen ziren zaldi-karroarekin. Tolosara joatea izaten zen txangoa.

**44. Eskolan gerraostean gaztelera**

- **Erref:** AND-040/035
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:48:13. **Bukatu:** 00:48:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena:**

Iñakik txikitan eskolan euskaraz ikasi arren, gerora 1936. urteaz geroztik kantak gazteleraz gogoratzen ditu.

**45. Medikuaren etxera**

- **Erref:** AND-040/036
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:48:46. **Bukatu:** 00:49:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

**Laburpena:**

Medikuaren etxera joan behar izaten zutela azaltzen die gazteei.

**46. Sukarrarentzat, izaina**

- **Erref:** AND-040/038
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:49:53. **Bukatu:** 00:50:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

**Laburpena:**

Sukarra igotzen zitzaientean, izaina besoan jartzen zutela kontatzen du, sukarra jaisteko.

**47. Irakasleen lana**

- **Erref:** AND-040/040
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:51:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena:**

Iñakik irakasle batek ikasgelan 1970. urtean 76 ikasle izan zituela kontatzen du.

**48. Andoaingo eskoletan banatuta**

- **Erref:** AND-040/042
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:52:06. **Bukatu:** 00:54:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

**Laburpena:**

Neska eta mutilak banatuta joaten zirela eskolara azaltzen du Jose Marik. Eskolak non zeuden kontatzen du Iñakik, ikasleek neskek non ikasten zuten jakin dezaten.

**49. Eskolako zigorrak**

- **Erref:** AND-040/045
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:56:01. **Bukatu:** 00:57:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

**Laburpena:**

Ikastetxean ez zituztela jotzen diote, baina entzun izan dutela nola zigortzen zituzten. Jo ez arren, paretari begira izaten zituzten. Zigorrak gaiztoak zirelako zirela dio Iñakik, ez euskaraz egitearren.

**50. Irakaslea zirikatzen**

- **Erref:** AND-040/046
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:57:17. **Bukatu:** 00:57:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Iñakik gelan irakasleari adarra nola jotzen zioten kontatzen du. Zirikatzaileari "baleak" ematen zizkiotela, zigorrik jaso ez zezan.

## 51. Gaztetan begirale lanetan

- **Erref:** AND-040/050
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 01:00:44. **Bukatu:** 01:01:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

### Laburpena:

Begirale lanean ibiltzen zirela kontatzen du Iñakik, gazteekin mendira joan eta jolasak egiten zituztela.

## 52. Andoaingo jaiak

- **Erref:** AND-040/053
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:05:40. **Bukatu:** 01:09:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa

### Laburpena:

Iñaki udaletxean jaiak antolatzen egon zen urte askoan. Jaietan jende asko inguruko herrietara joaten zen egitarau hobeak zirelako. Andoaingo jaietan, hala ere, idi demak, asto karrerak eta bestelakoak izaten ziren.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2025-11-23*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com